



Usurbilgo Udala



2015EKO APIRILAREN 24EAN EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Josune Urkola Larrarte A.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel A.

Ezin-etorria adierazi dute: Josu Portu Alzaga Jk., Enara Arbizu Irurtia Ak., Eustakio Arrojeria Eguzkiza Jk., Luismari Ormaetxea Santsiñena Jk., Miren Josune Urquia Carrera Ak. eta Ricardo Crespo Rubio Jk.

Eguerdiko 14:05etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko apirilaren 24ean, eguerdiko 14:05etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2015/05/24EAN IZANGO DIREN UDAL ETA BATZAR NAGUSIETAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA ETA IZENDAPENA.

CONOCE programa informatikoa erabiliz, 2015eko maiatzaren 24ean izango diren Udal eta Batzar Nagusietako hauteskundeetarako mahaikideen zozketa eta izendapena egin da.

2.- 2015/05/24EAN IZANGO DIREN ZUBIETAKO AUZO BATZARREKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA ETA IZENDAPENA EGITEKO ESKUMENA TOKIKO GOBERNU BATZARRARI ESKUORDETZEA.



Usurbilgo Udala



Gai hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko puntu hau gai-zerrendan sartzeko boz-keta egin da eta guztien aldeko botoarekin, aho batez, gai-zerrendan sartzea erabaki da.

Gaiari helduz, alkateak proposamenean aldaketa bat egitea proposatu du, hau da, eskuordetza oraingo hauteskundeetara mugatzea.

Aldaketa proposamenean txertatu da.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta honako erabakia hartu dute aho batez:

“Esp.zk.: ID.02/2015-0169

Ikusirik

2015eko apirilaren 16an Donostia eta Usurbileko alkateek, biek batera, Zubietako Herri Batzarraren Hauteskundeak ospatzeko deialdia egin dute, hauteskunde eguna 2014eko maiatzaren 24an izango delarik.

Hauteskunde horiek ospatzeko egutegia eta dagokion araudia ere adostu dute bi Udalek. Jasotako mugarren artean, maiatzaren 6an Usurbilgo hauteskunde mahaia eratzea aurreikusten da.

Udalbatza plenoak, 2005eko uztailaren 26an egindako Ohiko Bilkuran, korporazioa osatzen duten kideen gehiengo osoarekin, Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen. GAO 2005eko abuztuaren 4an argitaratu zelarik.

1995eko urriaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen aipatu Erregelamenduaren I. eranskina argitaratu zen, Zubietako Administrazio Osagarritzko Organoa arautzen duena.

Eranskinak bere lehenengo artikuluan jasotzen duen legez, Zubietak, batasun ezaugarritzko lur-esparrua, Usurbilgo eta Donostiako udalerriena, Administrazio Batzarra izango du, lur-esparruaren Administrazio- Osagarritzko Organo gisa.

Hirugarren artikulua Zubietako Auzo Batzarra eratzen duten batzarkideen hautaketa prozesurako jarraibideak jasotzen ditu:

3. Art.

Udal bakoitzaren zuzeneko hauteskunde-kontsultaren bidez gauzatuko da Batzarkideen hautaketa dagokion lur-esparruaren arabera, udal-hauteskundeekin batera, Batzarraren lehen osaketa ezik, kasu horretan Udal bakoitzak erabakiko duenaren arabera.

Agintealdia burutzeko geratzen den denboraldiagatik beteko dira bakanteak, Udal bakoitzeko zinegotzien denboraldiekin bat etorriz.



Usurbilgo Udala



Hauteskunde Prozeduraren Lege Arautzailearen berarizko xedapenak aplikatuko dira kontsultan, egoki balegokio

Hauteskunde Prozeduraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Arautzailearen 26.1 artikulua hauteskunde mahaien eratzea Udalei dagokiola aipatzen du besterik gabe, Zonaldeko Hauteskunde Batzordeak gainbegiratuta. Udalaren baitan eskumena zein organori zehazki dagokion argitze aldera, Hauteskunde Batzorde Nagusiak 1993ko maiatzaren 12an egindako Osoko Bilkuran, beste batzuen artean, honako akordioa hartu zuen:

Mahaien eraketarako zozketa egitea Plenoari dagokiola (...).

Zozketak ez du onarpenerako quorum berezirik behar; izatez, Udal Plenoa egindakoaren lekuko dela esan ohi da, betiere egindako Bilkura ekitaldi publikoa izaki.

Kontutan harturik

Kontuan harturik Udal Arautegi Organikoak, bere 7. artikulua araberak, Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak Plenoak, ebazpen bidez, espresuki delegatzen dizkion eskumenak izango dituela;

Kontuan harturik Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.4 artikuluan delegatu daitezkeen eskumenak jasotzen dituela, eta esku uztea debekatzen dituen gaien zerrendan zozketena jasotzen ez dela ikusita,

Eta esku uzteei dagokionez Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa Arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 51.artikuluak jasotako xedapenak jarraituz, eta aipatu Erregelamenduko 114 eta hurrengo artikuluetan eta Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 13.artikuluan jasotakoa kontuan harturik,

Hau horrela, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: Zubietako Hauteskunde Mahairako zozketa eta izendapenari dagokion eskumena Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea.

BIGARRENA: Zozketa egingo den Tokiko Gobernu Batzarraren saioak izaera publikoa izatea. Gai ordenean beste punturik balego, zozketa egiten den uneak izango luke izaera hori.

HIRUGARRENA: Ordezkaritza Zubietako Auzo Batzarra eratzeko 2015ean ospatu beharreko hauteskundeetara mugatuko da.

LAUGARRENA: Akordio hau hartu eta hurrengo egunetik aurrera izango da indarrean, GAO n argitaratu behar izanaren kalterik gabe.

BOSTGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da, eta Tokiko Gobernu Batzarraren kideei jakinaraziko zaie."



Usurbilgo Udala



Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du eguerdiko 14:15ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.